





PANTAILETAN GAZTEENTZAKO EDUKIAK EUSKARAZ

BALIABIDEAK





1 - PODCASTAK



🐱 Zatoz millennialkeriak egitera eta ez izan #horizontala



Podcastak aukera emanen du pausa bat egin eta bi astez gertatu direnei atzera begirakoa egiteko.

Albisteak berrikusi, askotariko esparruetan dabiltzan emakumeen eta genero disidenteen ahotsei bozgorailua eman, eta azkurak eragin, behar denetan.



Korapiloak podcastak osasun mentalari heltzen dio, lehen pertsonan. Iñigo Antsorregik begietara begiratu elkarrizketatzen ditu arazoren bat izan duten pertsona zenbait



Olatz Salvador eta Lore Nekane Billelabeitia (Belako) musikariek, beren bizipenak eta anekdotak aztertzen dituzte, Ainhoa Vitoriak gidatuta.

Musikak egin dizkien ekarpenak eta bizi izandako egoera eta pasadizoak, modu atseginean aztertuz.



Emakumezko kirolariak izango ditugu protagonista. Beraien kirol arloa eta bestelako gorabeherak zeintzuk diren jakiten saiatuko gara.



ARGIAren podcastak.



BIGARREN KAFEA. NAIZ IRRATIA.



ULUKAk astero liburu bat gomendatuko du, eta liburu horren inguruko bi lagun arteko tertulia bat izango da asteroko podcastean aurkituko duzuna.




Uhinetako bertsoen plaza podcastean eramangarri. Lehengo eta oraingo bertsoaldietara harpidetzeko aukera zabala




2 - FILMAK ETA TELESAILAK

- **EUSKAL ENCODINGS:** Euskarara bikoiztutako eta azpidatzitako edukien datubasea, edukiak deskargatuta edo online ikusteko aukera eskaintzen duena



+1500 eduki
DOAN ETA
IRAGARKIRIK GABE

- **ZER NON IKUSI:** Streaming plataformetan euskaraz dauden edukien zerrenda eskaintzen du, zein plataformatan dagoen eta edukiaren informazioarekin. Horretaz gain, zinemetako euskarazko estreinaldien inguruko informazioa ere biltzen du.






3 – JOLASAK



EGUNEAN BEHIN

Egunean partida bakarra jokatu ahal izango duzu, 10 galderako sorta bati erantzunez. Sariak daude astero.




BERBAXERKA

Agertutako letrekin hitzak osatu behar dituzu.

**Appa
hi!**


APPA HI!

Hitanoa praktikatzeko eta ikasteko APPa duzu hau! Sartu, erantzun galderak eta joan mailak gainditzen.



4 - GAME ERAUNTSIA

Entretenimendura zuzendutako euskarazko bideojoken zerrenda. Zerrendako bideojoko batzuk euskaraz merkaturatu dira, eta beraz, ez da ezer berezirik egin behar euskaraz jokatzeko. Beste batzuk, aldiz, itzulpen ez ofizialak dira, eta, horregatik, itzulpena deskargatu eta instalatu egin behar da.



103
BIDEOJOKO